
ERAKUSKETARIAREN GIDA

Zure interesekoa izan daitekeen informazio garrantzitsua du, parte-hartzea errazteko.
Mesedez, irakur ezazu eskuliburua arretaz.

AURKIBIDEA

- 1.** TOKIA, EGUNAK ETA ORDUTEGIAK
- 2.** ERAKUSKETARIENTZAKO ARRETA
- 3.** ERAKUSKETARIEN AKREDTAZIOAK
- 4.** MUNTATZEA– MERKANTZIAK SARTZEA – DESMUNTATZEA
- 5.** ORDAINKETA
- 6.** BISITARAK
- 7.** INAUGURAZIO OFIZIALA
- 8.** HITZALDIAK ETA JARDUERAK
- 9.** ERAKUSKETARIEN KATALOGOA MAPA INTERAKTIBOA
- 10.** WIFIA
- 11.** APARKALEKUA
- 12.** OSTALARITZA ETA JATETXEAK
- 13.** BESTE ZERBITZU BATZUK
 - OSASUN ZERBITZUAK
 - BEUP KIROL ZENTROA

1. TOKIA, EGUNAK ETA ORDUTEGIAK.

Tokia: BILBAO EXHIBITION CENTRE – BEC
1. eta 3. pabiloien arteko pasagunea
Azkue kalea, 1
48902 Barakaldo
+34 94 404 00 51
workinn@bec.eu
workinn.es
BECera nola heldu kontsultatu nahi baduzu, sakatu [HEMEN](#).

Egunak eta ordutegia: 2023ko ekainak 7 eta 8, 09:30etik 18:00etara. Ordutegi horretan zehar, standetan jendea egongo da harrera egiteko, eta materiala bistan egongo da.

Aukeran, erakusketariak ordutegia baino **ordu 1 lehenago sartu eta ordu 1 beranduago atera** daitezke.

2. ERAKUSKETARIENTZAKO ARRETA

Ekainaren 1etik, ostegunetik, ekainaren 10era, larunbatera, erakusketarientzako arreta eskainiko da **ERAKUSKETARIEN ARRETARAKO BULEGOAN**.

Ordutegia:

- Ekainaren 1etik 5era: 09:00etatik 18:30era.
- Ekainaren 6an: 08:00etatik 18:00etara.
- Ekainaren 7tik 10era: 09:00etatik 18:00etara.

Bulegoa eraikineko erdiko korridorean dago, Eremu Urdinean, 1. pabiloirako sarreraren alboan ([Ikus plano](#)).

3. ERAKUSKETARIEN AKREDITAZIOAK

Erakusketariak akreditazioak muntaketaren, erakusketaren eta desmuntaketaren egunetarako balio dute. Norberarenak eta besterenezinak dira.

Oraindik eskatu ez baduzu, Erakusketariaren Gune Pribatuaren bitartez egin dezakezu. AKREDITAZIOAK. Sakatu [HEMEN](#).

4. MUNTATZEA– MERKANTZIAK SARTZEA – DESMUNTATZEA

Standen muntaketa ekainaren 1ean hasiko da, 08:00etatik aurrera, eta ekainaren 5eko 15:00etarako amaituko da. Ordu horretatik aurrera, erakusketariak ezingo du pabiloira ibilgailuarekin sartu.

Muntaketa egunetan zehar, **Pabiloiko muntaketaren arretarako bulegoa** egongo da, ordutegi honetan:

- Ekainaren 1etik 5era: 09:00etatik 18:30era.
- Ekainaren 6an: 09:00etatik 18:00etara.

Gogorazi nahi dizugu **WORKinn** ekainaren 7an eta 8an egiten dela. Hilaren 7an bertan, **08: 30etatik aurrera, parte-hartzaileek beren stand-era sartu ahal izango dute, informazio-materiala, brandinga eta abar jartzeko.**

Hilaren 6an, **WORKinn-en** erakusketa gunea zabalik egongo da bisitarientzako networking gune gisa.

IBILGAILUAK Pabiloira Sartzeko eta Bertan Egoteko Araudia, Muntaketa - Azoka - Desmuntaketa egunetarako.

Zama-lanak errazteko, doako gehiegizko denbora ezarri dugu:

- Turismoak eta monobolumenak: 1 ordu.
- 3.500 kg-tik beherako karga baimenduta duten ibilgailuak. 2 ordu.
- 3.500 kg-tik gorako karga baimenduta duten ibilgailuak. 3 ordu.

Denbora hori igaro ostean, derrigorrezkoa ibilgailuak edo furgonetak bertatik atera eta lur azpiko aparkalekuan sartzea. **Denbora-tarte horiek gainditzen dituzten egonaldiak orduko 30,00 €-rekin zigortuko dira.**

Gogoratu::

- Esparrura sartzean jasotako txartela ikusteko moduko tokian izan denbora guztian.
- Merkantziak sartzeko ateen aurrean, larrialdietarako irteeretan eta suteen aurkako instalazioetan ez aparkatu.
- Lur azpiko aparkalekura sartzeko altuera 2,20 metrokoa da. BECek beste aparkaleku bat du kanpoan ibilgailu altuagoentzako.

Aurretiatzko garbiketa

Ekainaren 5eko, asteleheneko, 15:00etan, erakusketariak bota nahi dituzten paketatze edo elementu guztiak kendu beharko dituzte beren standetik. Hala, korridorean utzi beharko dituzte antolakuntzak azoka hasi aurretik pabiloia garbi dezan.

MERKANTZIEN banaketa eta entrega

Merkantzien harrera erakusketari bakoitzaren erantzukizunpean egingo da zuzenean bere standean, ekainaren 1etik aurrera. Erakusketariak **bertan edo ordezkatuta** egon behar du paketeak iristean.

Hartzailea bertan egongo ez balitz, antolakuntzak ez ditu merkantziak jasoko eta, lapurretaren bat edo galeraren bat gertatuz gero, ez du bere gain hartuko erantzukizunik.

Behar izanez gero, mesedez, helbideratu merkantzia hona:

BILBAO EXHIBITION CENTRE
Retiro kalea - 48903 Barakaldo (BIZKAIA)

WORKinn 2023 - 1. pabiloia
Enpresaren izena / Standaren zenbakia
Erakusketariaren telefono mugikorreko zenbakia

MATERIALA jartzea

Erakusketariak egunero joan ahal izango dute haien standetara materiala jartzeko, 08:30etik (publikoa baino ordu bete lehenago) 19:00etara (itxiera baino ordu bete geroago).

DESMUNTATZEA

Standen desmuntaketa ekainaren 9an 08:00etan hasiko da eta ekainaren 11ko 20:00etarako amaituta egon beharko du. Desmuntatze-ordutegia: 08:00etatik 20:00etara.

Ekainaren 8an, erakusketariak eskuz atera ahal izango dute standetako materiala 18:30etik 22:00ak bitarte. Ibilgailuak pabiloiko ateetara hurbildu ahal izango dituzte, baina ezin izango da, inola ere, pabiloian ibilgailurik, eskorgarik edo material-manipulatzailerik sartu.

Erakusketariak beren salgaiak atera ahal izango dituzte azoka barrutik Segurtasun Sailari IRTEERA-ORRIA erakutsiz.

5. ORDAINKETA

Gogorazten dizuegu azokaren eremua utzi aurretik ordaintzeke dauden zenbatekoak ordaindu behar direla. Kutxa eta Erakusketarien Arretarako bulegoa eraikineko erdiko pasilloan dago, Eremu Urdinean, 1. pabiloirako sarreraren alboan ([Ikus plano](#)). Ordutegi hau du:

- Ekainaren 1etik 5era: 09:00etatik 14:30era eta 15:30etik 18:30era.
- Ekainaren 6an: 08:00etatik 18:00etara.
- Ekainaren 7tik 10era: 09:00etatik 14:30era eta 15:30etik 18:00etara.

Ostegunean, ekainaren 8an, kontuak ordainduta dituzten enpresa guztiek IRTEERA-ORRIA jasoko dute haien standean material guztia ateratzeko.

Ordainketa modu hauetan egin daiteke:

- Eskudirutan (eurotan). 11/2021 legearen arabera, ez da onartuko BECen bulegoetan zuzenean 1.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoarekin eskudirutan egindako ordainketarik.
- Visa eta American Express txartelak.
- Kontuan dirua sartzea edo transferentzia:
IBAN: ES52 2095 0611 00 9105880388 BIC: BASKES2BXXX
IBAN: ES29 0182 1290 38 0201504440 BIC: BBVAESMMXXX

Ordainketen inguruko edozein zalantza argitzeko, erakusketarien arretarako bulegora joan zaitezke edo posta elektronikoko honetara idatzi: administracion@bec.eu

6. BISITARIAK

Zuen kontaktuak gonbidatu ditzakezue azokaren azken egunera arte, Eremu Pribatuaren bitartez: “Zure kontaktuak gonbidatu”. Sakatu [HEMEN](#).

7. INAUGURAZIO OFIZIALA

Inaugurazio ofiziala ekainaren 7an, 11:00etan izango da.

8. HITZALDIK ETA JARDUERAK

Hitzaldien, Talks-en eta ekitaldien egitaraua webgunean kontsulta dezakezu, sakatu [HEMEN](#).

+ **INDUSTRY 2023** azokaren esparruan egingo diren hitzaldietarako **sarbidea** eskaini ahal izango diezu zure bezeroei, 50 euroko **prezio bereziarekin**. Esteka honen bidez, hitzaldietan izena emateko formularioetara sartu ahal izango zara:

[ESTEKA prezio berezia](#)

9. ERAKUSKETARIEN KATALOGOA.

Gogoan izan webgunean zure enpresaren datuak eta ordezkatzun dituzun enpresenak betetzea gomendagarria dela, Erakusketariaren Gune Pribatua – Direktorioa (sakatu [HEMEN](#)).

Erakusketariaren Katalogoa da bisitariarentzako kontsulta-tresna nagusia. [HEMEN](#) kontsulta dezakezu.

10. WIFIA

Internetera doan konekta zaitezke eraikineko edozein tokitatik. Zerbitzuak eguneko 9 orduko zerbitzua eskaintzen du 512 K abiaduran.

Gaitasun edo denbora gehiagoko zerbitzua nahi duen erabiltzaileak, zuzeneko kontratazioa egin beharko du gure Zerbitzu Teknikoen Sailaren bitartez: serviciosworkinn@bec.eu

11. APARKALEKUA

BECeko aparkalekuak 4.000 plaza ditu 3 mailatan. Maila bakoitzean hiru eremu daude koloretan:

- **Eremu urdina** 1 eta 2 pabilioien azpian dago.
- **Eremu laranja** 3 eta 4 pabilioien azpian dago.
- **Eremu berdea** 5 eta 6 pabilioien azpian dago.

Parte-hartzaileentzat eskuragarri dauden abonuek gain (serviciosworkinn@bec.eu helbidera eska ditzakezu, aparkalekuaren erabilera puntualetarako), informazioa eta tarifak kontsulta ditzakezu webgunean, baita alde aurretik erreserbak egin ere. Informazio gehiago [HEMEN](#)

12. OSTALARITZA ETA JATETXEAK

BECek kafetegi, jatetxe eta autozerbitzu ugari ditu azokaren eremuan zehar.

Kontsultatu [HEMEN](#) eskuragarri dauden aukerak.

13. BESTE ZERBITZU BATZUK

OSASUN ZERBITZUAK

QuirónSaludek, HOSPITALITY zerbitzuaren bitartez, zure eskura jartzen du egonaldian zehar beharrezkoa den laguntza mediko oro. Informazioa eskuragarri [HEMEN](#).

KIROL ZENTROA

BECek kirol-zentro handia du eta azokako parte-hartzaileek bertara sartzeko aukera izango dute. BEC beUP zentroak eguneko txartela eskaintzen du oso prezio berezian azokara sartzeko akreditazioa erakutsiz gero. Informazioa eskuragarri [HEMEN](#).

ERAKUSKETARIANTZAKO BULEGOA/ OFICINA ATENCION EXPOSITOR /EXHIBITOR SERVICE OFFICE
BIDAIA AGENTZIA – AGENCIA VIAJES – TRAVEL OFFICE

